

JULIO URKIJO jauna

(1871 - 1950)



Urte auetan Urkijo jauna ere galdu du Euskaltzaindiak, gure elkargoa sortu zanetik euskaltzain izana.

A kok ez besteko lana burutu digu, eta alaz ere deus-gutxikatzat zeukan. Ori esaten zien ingurukoeti bein ta berriro bere azken-aldian. Ez noski umil-itxurak egiteko, ala uste melako baizik. Izan ere, berak egiña asko izanik askotaz piago baitzan besteei egin-arazia.

per eta liburu zaar billa zebillen beti, ez ordea zenkenko beretzat gordetzeko, zenbait liburuzalek bezela. Ikusi gaitzen edo erosten zuena guzioi banatu arte etzan gelditzen. Orrexegatik dauzkagu orain esku-artean, ederki ardurara emanak, Detxepare, Axular, Oihenart, Tartas, Etxepare, XVI eta XVII'garren mendeko esaera zaarrak.

z-lan labur, apaiñen bidez euskal-kulturaren historia literaturari buruz, batez ere oiñarri sendoak ematen ibili ez bezela lagundu du. Amaika argitasun ez ezik beste guzietan ere utzi digu: jakite-bide oietan barrena ibilli nai gaitzen ondorengoei ikasbide ederra. Gogor artzen zuen guzietan ere burua eta bai besteak ere. Bai baitzekien jakintza oietan borondate eta asmo onak, onenak dirala ere, ezin gaitzen aski, eta etzitzaion iruditzen elkar zurikatuz ezer aurreratu gaitzen ditekenez. Zeatz eta zorrotz neurtzen zuen beraz zer gaitzen zegoia, zer egi-antzekoa, zer uste utsa; zer gertatua gaitzen zegoen, zer asmatua. Auxe gogorazi nai zigun nonbait: eme guzietan ere bide estu ta nekagarriak, zabal-atsegiñak alde baten bidez zirik, autetsi bear dirala, ongi ibilli nai ba'dugu.

ik zuen noski arrotz-zale zalako izena. Etzan gaulen-daudenean artzen dituztenetakoa. Beretarrezak

nak, etxekoenak, baldin ba'ziran batez ere. Arrotzengandik zer ikasia ugari ba'geneukalakoan zegoen. Zuzen, noski. Euskal-erria da, jakiña, euskal-kultura gaiak lantzeko lantegirik egokiena, sortzez eta izatez ortarako aukeratua. Baiña ezta berez, besterik gabe, alabear utsez, ikas-leku nagusi biurtuko. Ori jakiñik sortu zuen bere aldizkaria, lurbira osoan euskal-jakingaien berria zabaldu duen RIEV ura. Eta ortara zuzendu zituen gero ere bere alegiñak.

Bere asmoak — gere asmoak — bizi dira oraindik. Eta gure artean dago, bere ikasbideaz gaiñera, bildu zingun liburutegi aberatsa, bere naiak betetzeko, ain gogoko izan zuen euskera goi-maillara jasotzea aztu gabe. Urkijo jaunaren bititza eta lanei buruz edozein argitasun nai duenak «Homenaje a D. Julio de Urquijo»'ren leenbiziko liburura jo dezake.

L. M.

JUAN CARLOS DE GUERRA

(1860 - 1941)



Nork aditu eztu ots aundiko izen au. Genealogi eta Heraldika kontuan aparteko itzala bereganatu duen izena, alegia? Arrasate edo Mondragoin bizi eta lan egiten zuen, antxe baitzuen bere jatorri edo leiñuko etxea, *Geneaenea* zeritzana. *Heráldica Vasca*-z egiñak dituen lan aundi ospetsuak eztitut emen aipatuko. nonai billa baititeke heroien berri. Bai, ordea, Arantzazuko Andre Mariaren omenez, euskeraz egiña duen liburua: «*Ama Virgiña Aranzazukoaren Kondaira*», Donostian, 1890. Liburu au Donostiko Lore-Jokuetan saristatua izan zan. Ortaz gaiñera, gure izkuntza zaarraz zer ikusi dutelako, aipagarri dira berberak egingdako edizio auek ere: «*Viejos textos del idioma*» eta «*Los cantares antiguos del euskera*». Mondragoitarrek Arantzazurakoan, urteoroko beren erromerian, kantatzen duten kanta eder ura ere, berberak tajutua da.

Donostian jaioa zan 1860 urtean eta bertan il 1941 garrenen. Goian bedi!